




## 1- Entzun aurretik



### 1.1 Surflariak

   Behean bildu ditugu surfari buruz sarritan entzun ditugun hainbat topiko. Ados al zaude horietako bat edo besterekin? Irakurri eta aukeratu zeure iritziarekin bat datozenak, edo azaldu zeurea. Ea ikaskideek zer pentsatzen duten!

Itxura aldetik txima luze horiak, palmeradun bainujantzia, quiksilver markako elastikoa, egurrezko lepokoa...

Garai batean surflaria hippye-a zen, eta gaizki ikusita zegoen; gaur egun, ondo ikusita dago.

Surflaria alferrontzia da, kolpe zorrik ez du jotzen.

Surflari asko produktu garestiak saltzeko marketinetik bizi dira.

Natura asko maite dute eta itsasoarekin duten lotura estuari esker, hari buruzko ezagutza ikaragarria dute

Besterik: \_\_\_\_\_

Abenturazaleak eta adoretzuak dira: emozio fuertek bilatzearen, bizitza jokatzeko dute askotan

Surfaren munduko jendeak "berezitat" du bere burua eta harroputz ukitua dute gehienek

Izaera alaia dute oro har, eta daukatenaekin pozik bizitzen dakite. Ohiko arazoak uxatzeko gaitasun handia erakusten dute.

Surfari hurbiltzen diren gazte askok neska/mutil ederrak bilatzeko bakarrik egiten dute

Surflariak, naturari begira bizi dira, euripean edo hotzez egon arren, itsasoari so orduak igarotzen dituzte.

### 1.2 Ile-oxigenatuak

Partekatu ikaskidearekin aurreko ariketan aukeratutakoak edota zeure iritzia azaldu. Ados al zaudete? Ondoren, entzun Jon eta Joneren arteko elkarrizketa eta aukeratu **Jonek** Jonen lagun surflariei buruz duen iritzia.

- Ile-oxigenatua daramate eta oso erakargarriak izaten dira
- Itxura ederra izatearen fama eduki arren, berari ez zaio batere gustatzen ile-oxigenatuaren estetika
- Ile-oxigenatua eduki edo ez, pertsona gogaikarriak dira Jonerentzat

## 2- Entzun bitartean

### 2.1 Egia ala gezurra

Entzun elkarrizketa eta adierazi baieztapen hauek egia ala gezurra diren. Ondoren, ikaskidearekin komentatu berak zer erantzun duen jakiteko.

✓	✗	
		Jonen lagun surflariak ilehoriak ziren gaztetan, baina gaur egun burusoilduta daude
		Jonek beldurra pasa du surfa egiten. Hondarraren orde, hondoa harkaitzez josita zegoen eta
		Udan surf egitera joango da lagun horiekin Iparraldera eta Jone bera bakarrik geldituko den beldur da
		Jonen udako asmoen artean Jone eta Nikorekin egun pasak egitea dago
		Jonen lagun berriak surfaren munduari oso lotuta daude: bata irakaslea da eta besteak surf denda bat omen dauka
		Jonerentzat garrantzitsua da bikotekide bakoitzak zaletasun propioak izatea
		Jonek surfa egingo luke gustura baina ez dauka ez neoprenorik ezta surf taularik ere

### 2.2 Gero eta surflari gehiago

Bikoteak ez du berdin pentsatzen surfa azkenaldian izaten ari den arrakastari buruz. Nola laburtuko zenuke esandakoak? Erabili ideia hauek zure azalpena egiteko eta ikaskideari azaldu. Ados al zaudete?

Idea hauek erabili Jon eta Joneren iritzia azaltzeko

- Surf irakaslea eta surf denda baten jabea dira Jonen lagunak
- Uretan jende gehiegi dago
- Surfean ondo ez dakitenak edozein tokitan sartzen dira surf egitera

### 3- Entzun ondoren

#### 3.1 Kirolak modan jartzearen ondorioak

Garai batean gutxi batzuek egiten zituzten kirolak modan jarri izanak masifikazioa ekarri du. Hainbatetan, surfean bezala, arazoak sortu omen ditu horrek. Irakurri testua adibide bat ezagutzeko eta ondoren, landu gai hori taldean.



**Donostiako Zurriolako hondartzak ez omen du ospe onik surflarien artean. Zaila omen da surfa egiteko, etxeokoe kanpokoak uxatzen dituztelako.**

**Mikel Agote surflaria:** *Surfa modan jarri da, eta hondartzak txikiak dira. Udan surflariak ugaritu egiten dira, eta mundu guztiak nahi izaten du uretan egon. Beraz, hor, ikasten ari direnak, maila ertainean dabiltzanak eta goi mailan dabiltzanak nahasten dira. Denak batera sartzen badira, kaka pila sortzen da, nahaste ikaragarria, eta horregatik sortzen dira gatazkak.*

[Gaztezulo](#)

#### Egin beharrekoak:

1. Talde txikitik komentatu eta aztertu:
  - Zein kirol gehiagorekin gertatu da masifikazioa? Jarri adibideak
  - Aztertu zergatik gertatu ote den
  - Zein ezaugarri on eta txar dauzka kirol horiek gero eta jende gehiagok egiteak?
2. Trukatu iritziak gainerako taldeetako ikaskideekin
3. Talde handian komentatu eta saiatu ondorioak ateratzen

*Bildu taula honetan talde txikian izandako eztabaidako hainbat ideia (apunte laburrak), ondoren talde handian partekatzeko.*

1	
2	
3	
4	
5	
6	